

[Inicio](#) > [Ocio y cultura](#) > [Cultura](#)

Jasone Osorok haurdunaldiaren "bidai harrigarria" deskribatu du "Bi marra arrosa" liburuan

TXALAPARTA ARGITALETXEAN KALERATU DU

"Garrantzitsuena da alaba izatetik ama izatera pasatzen zarela", dio Elgoibarko idazleak

JUAN G.ANDRÉS - Miércoles, 25 de Noviembre de 2009 - Actualizado a las 07:55h

☆☆☆☆☆ ivota! | [icomenta!](#)



Twitter

0



Recomendar

0



(Iker Azurmendi)

DONOSTIA. Txikia zela, Jasone Osorok (Elgoibar, 1971) ez zuen ama izan nahi. Nenuco panpinei biberioia eman eta pixoihalak aldatu baino, Nancy jantzi eta orraztea gustatzen zitzaion gehiago. Gaztaroan Mafaldaren istorioak ezagutu zituen eta Susanita pertsoniarekin ez zen batere identifikatzen, beti amatasunari buruz mintzatzen baitzen. Urteak pasa ziren eta ama-sena ez zen agertzen. Halako batean, baina, zerbait aldatu zen. Ama izan nahi zuen. "Ez dakit zerk eragin zuen, beharbada erloju biologikoak, bikote egokia aurkitzeak edo beste zerbaitek, baina ume bat edukitzea lehentasun bihurtu zen", azaldu zuen atzo Donostian. Predictor proba egin zuen eta haurdun zegoela adierazten duten bi marra arrosak ikusi bezain laster jakin izan zuen "bidai harrigarri" bat hasten zela.

ZAILA ETA ERRAZA Idazleak bere lehen haurdunaldiaren esperientzia deskribatu du atzo aurkeztutako *Bi marra arrosa* (Txalaparta) izeneko liburuan. Egileak berak onartu zuenez, ez da gida bat, ezta entziklopedia bat ere, bere esperientziari buruzko "testigantza" baizik. "Ida-tzi dudan libururik errazena eta zailena izan da: erraza fikzioa ez delako eta zaila biluzi naizelako. Intimidade asko kontatu ditut, nireak eta bikotearenak, eta horrek halako lotsa ematen zidan", gaineratu zuen.

Osorok esan zuenez, haurdun geratzean "poza eta ilusioa" dira nagusi, baina "beldurra eta zalan-tzak" ere tartean daude. "Egun berean pozik eta triste egon zaitezke, erantzunik gabeko galderak etengabe sortzen dira eta garrantzitsuena honakoa da: alaba izatetik ama izatera pasatzen zara. Beste pertsona baten erantzulea zarenez, bizi-tzaren ikuspegia erabat aldatzen zaizu", azpimarratu zuen.

Duna jaio zen idazleak 36 urte zituela. Orain dela hilabete gutxi jaio zen Edith bigarren alaba. Liburua biei dedikatu die. Eta amaieran, Lander Garro idazle eta lagunak idatzitako testua sartu du Osorok.

Txalaparta argitaletxeak animatuta idatzi zuen liburua, gai horren inguruko materialak eskasak baitira euskal literaturan. Areago eskasagoak dira aitatasunari buruzkoak. Horregatik, editoreek eta egileek gonbita luzatu zuten gizonezkoen ikuspuntutik gaia aztertzeko.

Vista:

[Más texto](#)

[Más visual](#)

